



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKIA, 2020ko otsailaren 28koa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, UNIBERTSITATEKO IRAKASLE AGREGATUEN PLAZAK BETETZEKO LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARATZEKO DENA.

2020ko urtarrilaren 13ko Erabakiaren bidez deia egin ondoren unibertsitateko irakasle agregatuen plazak betetzeko (2020ko otsailaren 5eko EHAA), eta amaituta eskariak aurkezteko epea, errektoreak ondokoa erabaki du:

Lehen.- Onestea lehiakide onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrenda erabaki honen eranskinean jasotako moduan eta argitara ematea. Zerrenda Leioako Errektoregoko Lehiaketen Ataleko iragarki ohelean eta campusetako errektoreordetzetakoetan ikus daiteke, bai eta unibertsitatearen web orrian ere (<http://www.ehu.eus/>, Irakasleak-Deialdi bideratuak).

Bigarrena.- Lehiakide kanporatuek hamar egun baliouduneko epe luzaezina izango dute kanporatzea eragin duen akatsa zuzentzeko, zerrenda Unibertsitateko web orrian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita. Lehiakide onartuen zerrendan zein lehiakide kanporatuen zerrendan agertzen ez direnek ere epe berbera izango dute, zerrenda horietako batean ere ez agertzea eragin duen akatsa zuzentzeko.

Aipatutako epearen barruan akatsa zuzentzen ez duten lehiakide kanporatuek eskubide guztiak galduko dituzte, eta halaxe egingo dute, era berean, zerrendetako batean ere azaldu ez direnek, baldin eta epe horretan frogatzen ez badute onartuen zerrendan agertzeko eskubidea dutela.

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Leioa, 2020ko otsailaren 28koa.

ERREKTOREA

Eskumenak eskuordetuta (Erabakia, 2017ko urtarrilaren 25koa, errektorearena, 2017/02/03ko EHAA), Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

Izpta.: Inmaculada Guerricagoitia Marina





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERANSKINA. LEHIAKETARA ATERATAKO PLAZEN DATUAK:

IRAKASLE AGREGATUAK

Lanpostuaren zenbakia: 1. Kodea: AGC8L1- D00096-13. Kategoria: Irakasle agregatua. Jakintza arloa: Hezkuntzaren Teoria eta Historia. Saila: Hezkuntzaren Teoria eta Historia. Ikastegia: Bilboko Hezkuntza Fakultatea. Hizkuntz eskakizuna: Elebiduna. Arduraldia: osoa. Burutu beharreko zereginak: «Hezkuntzaren Historia».

ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA:

Izena eta deiturak: KARMELE ARTETXE SANCHEZ
NAN: ***9591**

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA: Bat ere ez

Lanpostuaren zenbakia: 2. Kodea: AGC8L1- D00103-19. Kategoria: Irakasle agregatua. Jakintza arloa: Ingeles Filologia. Saila: Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpen-gintza eta Interpretazioa. Ikastegia: Letren Fakultatea. Hizkuntz eskakizuna: Ez-elebiduna. Arduraldia: osoa. Burutu beharreko zereginak: «Ingeles Fonetika».

ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA:

Izena eta deiturak: ESTHER GOMEZ LACABEX
NAN: ***8037**

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA: Bat ere ez